

'Musealiak' erakusketaren barruan kuela dugu Igartubeitiko protagonista

Jauregi baserriko jabeak 2020. urteko urtarrilean Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ondare Bildumaren Zentroari eskaini zion pieza hau



Musealiak proiektuaren barne kuela pieza ikusgai dago Interpretazio Zentroan. / IGARTUBEITI

MIRYAM GALILEA

Ezkio-Itsaso.

Sábado, 20 febrero 2021, 00:27



Musealiak proiektuaren baitan, bigarren pieza bat ikusteko aukera eskaintzen digute Igartubeiti Baserri Museoan. Orain dela hilabete batzuk 'Kafe jokoa' ikusgai izan bagenuen, oraingoan 'kuela' da interpretazio zentroko protagonista.

Kuela, kono-enbor formako zurezko ontzia da, bertikalki elkartutako oholez osatua dagoena. Ohol hauek berriz burdinazko hiru uztairen bidez bermatuta daude: goiko ertzaren ondoan lehena, erdialdean bestea eta azkena oinarrian; alde bakoi-tzean bi helduleku ditu.

«Kupel edo barrika bat dirudi baina ez da. Sagardogintzari lotuta dagoen pieza da noski, baina ez zen sagardoa gordetzeko erabiltzen. Baserritar eta sagardogileek sagarraren inguruko tratua egiteko orduan erabiltzen zuten», azaltzen dute Igartubeiti Baserri museotik.

Hortaz, kuela, sagar kantitate zehatza jakiteko neurgailua da. Ontziaren edukiera 50-55 kilo ingurukoa da, sagar-zaku batekoa gutxi gora behera. Sagarraren kantitatea neurtzeko modu zehatza zegoen, kargaka edo karro edo gurdikaraka neurtzen zen hain zuzen ere. Sagar karga bat gaurko 300 kilo sagar lirateke. Beraz, sei kuelek sagar karga bat osatzen zuten.

Ondarea

Kuela hau jatorriz Orendaingo (Gipuzkoa) Jauregi baserrikoa da. Orendain Gipuzkoako barnealdeko herri txiki bat da eta Tolosako eskualdearen parte da. «Historikoki zonalde hau Beterri bezala ezagutu izan da, Goierri eskualdearen hegoaldeko zati bezala alegia», diote antolatzaileek.

Pieza hau XX. mendekoa da, asko jota 100 urte izango dituelarik; sagardoaren historiari begiratuta ez da hain pieza zaharra. Baina, «leku zehatz bateko historia eta kultur ondarea hobeto dokumentatzen laguntzen du. Hau da, bizimodu baten lekukoa litzateke, gaur ondare bihurtuta», diote baserritik.

2020ko urtarrilaren 8an, Jauregi baserriko jabeak kuela hau Gordailuari eskaini zion, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ondare Bildumen Zentroari alegia, eta honek 150 eurotan erosi zuen. Ordutik beraz Gipuzkoako ondare bildumaren parte da.

Sagardogintza

Kuela honek sagardogintzak Gipuzkoako beste zonalde batzuetan izan duen ibilbidea hobeto ulertzen laguntzen digu. «Azken hamarkadetan sagardoaren munduaren inguruan eraiki den iruditeriak Donostia, Astigarraga, Hernani eta Usurbil inguruetara mugatu du sagardoaren jarduera. Baina hori bilakaera historiko baten ondorio dela esan liteke, izan ere sagardogintzaren historia ez da eremu horretara soilik mugatu», azaltzen dute Igartubeititik.

Kuela hau XX. mendeko pieza bat dugu, eta esan liteke sagardoaren munduaren bi aldi edo muturrak lotzen diren garaiko pieza dela: sagardoaren industria krisialditik irten eta bide berrietan barrena murgiltzen hasi deneko garaia lotzen ditu. Sagardoaren eta bere atzean dagoen historia balioan jarri da azken hamarkadetan, produktu soil bat izatetik atzean oinarri kultural bat duen elementu bat izatera pasa baita. Hala eta guztiz, oraindik orain ere erronka ugari ditu aurretik. Izan ere gaur egun, sagardoaren kontsumo eta eskaria handitzen doa, baina probintziako sagasti kopurua ez ordea.

Pieza honen inguruko xehetasun guztiak ezagutzeko Igartubeitiko Interpretazio Zentrora gerturatu besterik ez da egin behar. Bestela ere, museoko web orrian (www.igartubeitibaserria.eus) honen inguruko informazio idatzia, audioa eta bideoa ere aurki ditzazkegu. Informazio gehiagorako 943 72 29 78 telefonora deitu daiteke.

LO + LEÍDO

El Diario Vasco Ezkio

Top 50

- 2 Natur Ondarearen Kontserbazio Proiektuko ekintzen informazioa prest
- 3 Ahalmentzea zaldiekin, Aste Santuko lehenengo ekintza
- 4 Hogeita bat lagun Amaia Ruizen solasaldian
- 5 Baratzeko landaketaren planifikazioa egitea oso garrantzitsua da

Comentarios

MÁS NOTICIAS DE DIARIO VASCO



Navarra queda confinada a partir del jueves



'La Isla de las Tentaciones' elimina a Carlos, detenido por abuso sexual

PATROCINADA

JULIUS BAER

El futuro (o presente) del videojuego: jugadores de 30 años y cada vez más mujeres



TE PUEDE INTERESAR



Invertir 270€ en Amazon u otras acciones podría generarle ingresos extra. Vea cómo hacerlo

La revista de la riqueza | patrocinado



Este es el mayor campus universitario de Diseño y Tecnología, por algo será...

ESNE | patrocinado



40 caras reales de personajes históricos famosos recreados con tecnología CGI

Desafiomundial | patrocinado

MÁS NOTICIAS





Urkullu alerta de que Euskadi se encuentra en peor situación frente a una posible cuarta ola

DIARIOVASCO



«He terminado asqueado de esta situación y he decidido no abrir más el bar»

DIARIOVASCO



Receta de sopa de ajo de Martín

Berasategui

DIARIOVASCO

recomendado por


Fotos



📷 Madrid rinde su homenaje a las víctimas del terrorismo



📷 Nominados a los premios World Press Photo



📷 Alerta por galerna y caída de la temperatura



📷 Fotogalería: El Maserati Bora cumple 50 años

© Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.
Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018



En lo posible, para la resolución de litigios en línea en materia de consumo conforme Reglamento (UE) 524/2013, se buscará la posibilidad que la Comisión Europea facilita como plataforma de resolución de litigios en línea y que se encuentra disponible en el enlace <http://ec.europa.eu/consumers/odr>.



[Contactar](#) | [Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Mapa web](#) | [Política de cookies](#) |